

# Gizarte Antropologiako Gradua

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

| DONOSTIA | SAN SEBASTIÁN |



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación

Tolosa hiribidea 70  
20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)

e-mail: [practicum.fice@ehu.es](mailto:practicum.fice@ehu.es)  
<http://www.sc.ehu.es/sfweb>



# Gizarte Antropologiako Gradua

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

www.filosofia-hezkuntza-zientziak.ehu.es

## ■ IKASKETEN DESKRIBAPENA (PRESTAKUNTZA PROGRAMAREN HELBURUAK)

Gizarte Antropologia Gizarte Zientzien diziplina bat da, kulturen aniztasuna ikertzen duena, hau da, giza esperientziaren aniztasuna denboran eta espazioan.

Antropologiak gaur egungo gizarte gertaera ugarian sakontzen du, hala nola: desberdintasun sozio-ekonomikoak; etnien identitateak; klaseko, generoko, erlijio eta adineko identitateak; immigrazioak eta gizarte-politikak; kultura herrikoia eta tradizionalaren adierazpen konplexuak; eta, aldaketa soziokulturaletan sortutako egoeren ondorioak.

Gizarte Antropologia Graduaren helburua ikasleei beharrezkoak diren tresnak ematea da, kultura-aldakortasuna eta gizarte-bizitzaren konplexutasuna ikertu ahal izateko.

Berariazko helburuetako bat da ikasleei gaitasuna ematea eskuratutako jakintzak erabili ditzaten, bestelakoak diren gizarte eta kulturen arteko harremanak ikertzeko eta ulertzeko, eta baita gaur egungo gaiak aztertzeko ere. Horretarako, ikasleek etnografiako landa-lanak egin, eta hainbat jardura eremu nahiz testuingurutan esku hartuko dute.

Ikasketen planak prestakuntza teoriko, metodologiko eta tekniko trinkoa eskaintzen du eta biharko profesionali diziplina honen garapen berrienei aurre egiteko beharrezkoak zein nahitaezkoak diren gaitasunak eta jakintzak ematen dizkie.

## ■ SARTZEKO PROFILA

Gradua egokia da gizarte-errealitatea eta bere prozesuak ezagutu nahi dituen ikaslearentzat eta gizarte-errealitate horretan ageri den aniztasun eta konplexutasunaren aurrean bereziki sentibera denarentzat. Jarrera kritikoa duten pertsona bizi, ireki eta sortzaileak dira ikasketa hauek egiteko aiposenak; alegia, gizartean esku hartzeko gogoak dituztenak, egoera nahiz espazio anitzak behatzeko prest daudenak eta beste pertsona batzuekin komunikatzeko gai direnak.

## ■ IKASKETEN ANTOLAKUNTZA

| Kredituak  |                                 |                                   |              |            |                 |                      |         |
|------------|---------------------------------|-----------------------------------|--------------|------------|-----------------|----------------------|---------|
| Ikasturtea | Adarreko oinarrizko irakasgaiak | Beste adar batzuetako irakasgaiak | Nahitaezkoak | Hautazkoak | Kanpo praktikak | Gradu amaierako lana | Guztira |
| 1. maila   | 36                              | 24                                |              |            |                 |                      | 60      |
| 2. maila   |                                 |                                   | 60           |            |                 |                      | 60      |
| 3. maila   |                                 |                                   | 60           |            |                 |                      | 60      |
| 4. maila   |                                 |                                   |              | 30         | 18              | 12                   | 60      |
| Guztira    | 36                              | 24                                | 120          | 30         | 18              | 12                   | 240     |

## TITULUAREN PROGRAMA

Gizarte Antropologia Gradua honako printzipio hauen arabera diseinatu da: diziplinartekotasuna, koordinazio horizontala eta bertikala, ikasketen eta lan-munduaren arteko lotura, eta prestakuntzaren sekuentzia koherentea.

Lau urteetan emango diren ikasgai edo irakasgai guztiek 6 ECTS kredituen irakaskuntzakarga dute eta modulutan biltzen dira. Modulu orokorrak honako hauek dira:

- Historia.
- Filosofia.
- Etika.
- Soziologia.

Antropologiako diziplinaren modulu espezifikoak, berriz, hauek dira:

- Gizarte Antropologiaren Teoria eta Historia
- Gizarte Antropologiaren Gai Multzoak
- Antropologiako Ikerkuntzako Teknikak, Metodoak eta Epistemologia
- Gizarte Antropologia arloan lana egiteko prestakuntza
- Gradu Amaierako Lana

Horrez gain, euskarako moduluak prestakuntza egokia bermatuko du euskararen araei, erabilera orokorrari eta Giza eta Gizarte Zientzien berariazko erabilerari dagokienez.

Nahitaezko eta hautazko irakasgai guztiak, (azken hauek txandaka), euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izango dira.

Beste hizkuntza batzuk, hala nola ingelesa edo frantsesa, prestakuntzan emango dira, hainbat irakasgai hizkuntza horietan egin ahal izango direlako.

Gizarte Antropologia Graduaren lehen maila eta Filosofia Graduarena berak dira. Ikasturte honetan modulu orokorreki dagozkien irakasgaiak emango dira.

Prestakuntzaren antolakuntza ikasgai edo irakasgaien arabera:

|                  |  |  |
|------------------|--|--|
| Lehen maila      | 1. lauhilabetekoa  | 2. lauhilabetekoa  |
|                  | Pentsamenduaren Historia I<br>Antropologiarako Sarrera I<br>Filosofiarako Sarrera I<br>Soziologia<br>Filosofiako Oinarrizko Testuak                            | Pentsamenduaren Historia II<br>Antropologiarako Sarrera II<br>Filosofiarako Sarrera II<br>Antropologiako Oinarrizko Testuak<br>Etika   |
| Bigarren maila   | 1. lauhilabetekoa  | 2. lauhilabetekoa  |
|                  | Antropologia Politikoa<br>Gizarte Antropologiaren<br>Metodo eta Teknika Kualitatiboak<br>Biztanleria eta Demografia<br>Erritoak eta Sinismenak                 | Senidetasunaren Antropologia<br>Historia Antropologia Ekonomikoa<br>Metodo eta Teknika Kualitatiboak II<br>Antropologia Sinbolikoa<br>Ikuspegi Feminista Gizarte Antropologian   |
| Hirugarren maila | 1. lauhilabetekoa  | 2. lauhilabetekoa  |
|                  | Euskal Kultura I<br>Kultur Politika eta Kudeaketa<br>Zientziaren Filosofia I<br>Metodo eta Teknika Kuantitatiboak I<br>Genero Sistemak: Kulturarteko Ikuspegia | Euskal Kultura II<br>Kulturarteko Hezkuntza<br>Zientziaren Filosofia II<br>Antropologiarako Iturri Dokumentalak<br>Gizarte Teoria eta Egitura  |
| Laugarren maila  | 1. lauhilabetekoa  | 2. lauhilabetekoa  |
|                  | Kanpo-praktikak<br><b>HAUTAZKO IRAKASGAIK</b><br>Antropologia eta Hizkuntza<br>Euskararen Arauak eta Erabilera<br>Museoak, Kultura Ondarea eta Artea           | Gradu Amaierako Lana<br><b>HAUTAZKO IRAKASGAIK</b><br>Antropologia Bisuala<br>Komunikazioa euskaraz: Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak<br>Gorputza, Osasuna eta Gaixotasuna<br>Estetika Garaikidea<br>Filosofia eta Literatura<br>Espazioaren Antropologia<br>Mugikortasuna eta Migrazioa |

## ■ MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Antropologiako ikasketak Espainiako unibertsitateetan, Europako herrialde gehienetan, Amerikako unibertsitate askotan eta munduko beste hainbat lekutan ematen dira.

Filosofia eta Hezkuntzaren Zientziak Fakultateak, Gizarte Antropologia Graduaren ikasketak egiteko sarbidea ematen duenak, UPV/EHUK bultzatutako mugikortasun-programa hauetan parte hartzen du: Sicue-Séneca, Erasmus, Latinoamerika eta beste norako batzuk.

Programei, norakoei, araudiari eta abarrei buruzko informazioa hemen kontsulatu daiteke:  
<http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/es/>

## ■ PRAKTIKAK

Practicuma (edo kanpo-praktikak) nahitaezkoa izango da Gizarte Antropologia Graduaren ikasle guztientzat. Antropologiaren aplikazio praktikoaren lehen pausoa da, ikasleei enpresetan, erakunde publikoetan eta gizarte- eta kultura-elkarte edo erakundeetan egoteko aukera ematen baitzaie. Practicumak 18 kreditu ditu eta 4. mailako lehen lauhilabetekoan egin behar da.

Practicumak lanbiderako atea zabaltzen du, unibertsitatearen eta lan-munduaren arteko lotura egiten du, eta, horrez gain, harremanetan jartzen ditu teoria eta praktika. Practicumak antropologiaren ohiko eginkizunak egiteko aukera ematen du: hainbat arazori buruzko diagnostikoa eta/edo ikerkuntza; hainbat jarduera eremutako programen plangintza, aholkularitza, kudeaketa eta ebaluazioa; baliabideen dinamizazioa (kulturalak, museoetakoak, etab.); bitartekaritza, berrikuntza eta prestakuntza gizarte-ingurune anitzetan.

Horiek egiteko Fakultateak lankidetzak-akordioak ditu elkarte, erakunde eta enprekin. Beren esku-hartze eremu nagusiak honako hauek dira: ikerkuntza eta aholkularitza, museoen eta kulturaren kudeaketa, arreta sozio-sanitarioa, kulturarteko bitartekaritza, garapenerako lankidetzak, aukera-berdintasunari eta hizkuntza normalizazioari lotutako arloen dinamizazioa.

## ■ ESKURATUTAKO GAITASUNAK

Gizarte Antropologia Graduaren ikasketa amaitu ondoren, ikasleak honako gaitasun hauek izango ditu:

- Mundu garaikidearen gizarteko eta kulturako aniztasunari buruz hainbat arlotan dauden teoriak ezagutuko ditu, esate baterako: ekonomia eta ekologia, gizarte antolakuntza eta senidetasuna, sistema politiko eta juridikoak, erritoak, erlijioa eta sistema sinbolikoak.
- Giza erakundeak aztertze eta azaltzeko gai izango da kultura-eraketa zabalenen barruan, ikerketa-xedea den edozein gairen aurrean ikuspegi holistikoa aplikatuta.
- Gizarte aniztasunaren berri eman ahal izango du, gizarteko, geografiako eta historiako testuinguruetan, antropologiaren ekarpenei eta beren analisi ikuspegiei balioa emanez.
- Oinarri teorikoa, metodologikoak eta teknikoak aplikatuko ditu antropologiako lanetan, jarduera-esparrua edozein dela ere.
- Antropologiako ikerketak egin ahal izango ditu, hainbat teknika eta dokumentu-iturriren bidez eginiko landa-lanean oinarrituta.
- Eskuratutako jakintzak komunikatzeko eta praktikara eramateko gai izango da, eskuhartze politiken diseinuan, gizarte-arazoen konponketan, eta, oro har, kultura anitzeko testuinguruetan pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko zuzenduriko jardueretan.

## ■ GRADUDUNAREN PROFILA

Graduduna gizarte-errealitatea aztertzen aditua izango da ikuspegi akademiko-zientifikotik nahiz profesionaletik. Gizartearen gertakariak eta prozesuak interpretatzeko gaitasuna izango du, ikuspegi konparatibo eta holistiko batean oinarrituta. Era berean, gizarte-aniztasunaren sorreran eragiten duten faktoreekiko sentibera izango da. Eremu teoriko eta praktikoak menderatuko ditu eta tokian tokiko ikasketei buruzko informazioa beste kultura arlo batzuetakoarekin konbinatzeko gai izango da.

Bere ezaguerak hainbat arlotan profesionalki aritzeko aukera emango diote, esate baterako, kulturarteko harremanetan, tokian tokiko garapenean eta nazioarteko lankidetzan, kultura ondasunetan eta kultura-kudeaketan, ikerkuntzan eta irakaskuntzan, ikerkuntza aplikatuan eta zerbitzu pertsonal, sanitario eta sozialen Hori guztia aurrera eramateko, gradudunak etnografiaren gaineko idazketan eta ulermenean prestakuntza izango du eta trebeziak bereganatuko ditu jakintza komunikatzeko, gizartearen esku hartzeko eta antropologiako gaietan etengabe hobetzeko.

## ■ LAN-MUNDUAN SARTZEA

Gizarte Antropologia irtenbide profesional interesgarriak dituen diziplina da. Horien artean mundu garaikidearen eremu garrantzitsuak nabarmentzen dira, hala nola kultura askotarikotasuna, ezagutzaren gizarte, hezkuntza, osasuna, gutxiengoak eta gizarte bazterkeria, eta, oro har, Gizarte Antropologiako prestakuntza jaso duten profesionalen premia duten eta izango duten gaiak.

Gizarte Antropologian lizentziadunak dituen laneko aukerak kontuan hartuz, UPV/EHU ezarriko den graduaren edukiak diseinatzean hiru profil profesional aukeratu dira; hain zuzen, honako lan-eremu hauekin identifikatzen direnak:

- **Gizarte-aniztasuna eta kulturarteko harremanak:** kultura-aniztasunaren gaineko aholkularitza, kulturarteko bitartekaritza, gizarte-intereseko gaien gaineko aholkularitza eta prestakuntza –generoa eta desberdintasuna, kultura askotarikotasuna, migrazioak, giza eskubideak,...
- **Ikerkuntza aplikatua: aholkularitza, administrazio publikoa eta kulturakudeaketa:** museoaren eta kultura-ondarearen kudeaketa eta dinamizazioa, tokian tokiko eta komunitateko garapena, kultura-sustapena eta kultura-kudeaketa, aholkularitza giza baliabideetan, gizarteko eta osasuneko baliabideetan, enpresaren arloan...
- **Irakaskuntza, ikerkuntza eta ezagutzaren hedapena:** trebatzaileen prestakuntza, kultura aniztasunaren gaineko prestakuntza, lankidetzak komunikabideetan, partehartzea sentsibilizazio-kanpainetan ,...

## ■ EZARPEN-KRONOLOGIA

2010/11 ikasturtea: **1. maila**

2011/12 ikasturtea: **2. maila**

2012/13 ikasturtea: **3. maila**

2013/14 ikasturtea: **4. maila**